

IPUINAK

HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO LITERATUR LEHIAKETAK 1994

I gaz, lehendabiziko aldiz, Lezoko Udal Liburutegiak haur eta gatzetxoentzako literatur lehiaketak antolatu zituen, bide batez bi lezoar bereziki argi oroitarazi nahirik: Lope Isastikoa historiagilea (+ 1627) eta Jon Garbizu "Zubigar" olerkaria (+ 1930). Oro har 78 lan aurkeztu ziren, hots, 54 ipuin eta 24 olerki, adinen arabera horrela banaturik: 6 urtetik 8ra bitartekoen mailan 41 ipuin eta 3 olerki, 9 urtetik 11ra bitartekoenean 7 ipuin eta 16 olerki, eta azkenik 12 urtetik 14ra bitartekoenean 6 ipuin eta 5 olerki.

Ondoren, irakurle, irabazleen zerrenda duzu, eta jarraian saritutako lanen argitaraldia, idazletxo berrien uzta goiztiarra, alegia.

"I. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK" (1994)

- (6-8 urte) **Maddalen Dorronsoro Amiano**: "Jon txikia".
- (9-11 urte) **Naiara Arteaga Taberna**: "Altxorra".
- (12-14 urte) **Xabier Arregi Urkizu**: "Txuri artzaizakurra".

"I. JON GARBIZU OLERKI SARIAK" (1994)

- (6-8 urte) **Eñaut Makazaga de la Torre**: "Hitz jokua".
- (9-11 urte) **Xabier Dorronsoro Amiano**: "Gustoko txokoak".
- (12-14 urte) **Izaskun Urkia Lazkano**: "Zuhaitza naturaren euskarria".

JON TXIKIA

.....



Bazen behin Jon izeneko mutil bat. Lau urte zituen eta etxe eder batean bizi zen. Jonek ilea beltza zuen eta aurpegia pekaz beterik zeukan. Eta etxean Ile Beltz deitzen zioten.

Egun batean mendian zegoela otso batek harrapatu zuen eta bere kobazulora eramán zuen. Jon beldurturik zegoen otsoak jan egin nahi zuelako. Bapatean ideia bat bururatu zitzaion: kobazuloan zegoen zuahitz batera igo zen otsoa despistatua zegoenean, eta goian zegoen zulo batetik eskaipo egin zuen. Korrika korrika etxera joan zen. Handik aurrera Ile Beltz Ausarta deitzen zioten.

MADDALEN DORRONSORO AMIANO

7 urte

ALTXORRA

.....



Baziren behin Itziar eta Ane izeneko bi neska. Lagunak ziren biak. Eta behin, etxera joan beharrean hondartzara joan ziren. Jolasten ari zirela botila batek jo zion Aneri. Botila Aneren eskuetara joan zen zuzen-zuzen. Anek dei egin zion Itziarri:

- Itziar, zatoz hona!
- Itziar korrika iritsi zen:
- Zer gertatzen da?
- Botila bat aurkitu dut. Eta zerbait dago barrenean.
- Ireki dezagun orduan!

Botila ireki zutenean asko harritu ziren. Paperean zera jartzen zuen:

"Altxorra aurkitu nahi baduzue Lanpa-nolira joan behar duzue. Hau da, hamazazpi pauso eta mila eta bat salto. Eta ez zarete damutuko. Altxor bikaina izango dela zintez gaituzten dizuet.

"Piraskor Pirata"

Bi lagunak ez ziren asko fidatu. Baina azkenean baietz erabaki zuten, ez zegoela ezertxo ere galtzerik.

Piraskor pirata benetan gaiztoa zen:

– Ja, ja, ja. Nire plana bikain doa. Laister Itziar eta Ane marrazoen janari izango dira. Ja, ja, ja.

Hurrengo egunean geratu ziren hondartzan gure bi lagunak. Itsas untzia ere bazeukaten. Lanpa-nolira joateko prest zeuden biak. Iritsi zirenean, hantxe zegoen Piraskor pirata. Piraskor piratak hau esan zien adiskidetsuki:

– Altxorra aurkitu nahi baduzue urpera joan behar duzue –esan zien behatz batez urpera seinalatuz.

Bi lagunak urpera joan ziren. Baina han ez zegoen altxorrik. Han marrazoak besterik ez zeuden. Piraskor pirataren ustez behintzat.

Baina oker zegoen Piraskor pirata. Han urpean bai zegoen altxorra. Ikusiko duzuen bezala.

Urpean Piraskor piratak egia jarri zuen. Orduan bi lagunak “altxorra” jartzen zuen tokira joan ziren. Hura zen ezustea hura!, den dena urrezkoa zen. Bi aldiz pentsatu gabe, urre guztia beren itsasuntzira eramane zuten. Itsasuntzira iritsi baino lehen, bazekiten Piraskor pirata gaiztoa zela. Eta horregatik, sorpresa bat egin zioten. Piraskor pirata lotu eta bere itsasuntzia urperatu zuten. Piraskor piratak zera esan zuen hasperen batez:


– Ez! Nire plana bikain zihoan eta! Ezin liteke egia izan!

– Ba, bai! Egia da! –esaten zuten bi lagunek farrez.

Festa bikain bat egin zuten. Eta handik aurrera oso pozik bizi izan ziren.

NAIARA ARTEAGA TABERNA

9 urte



TXURI ARTZAIZAKURRA



Antton Aralargo artzai bat zen. Egunez bere ehun eta berrogei ardiak zaintzen zituen. Esnearekin gazta egiten zuen eta artilearekin galtzerdiak. Artzaizakur bat zuen, Txuri, bere esan guztiak zintzo betetzen zituen.

Egun eguzkitsu batean bere artaldea hartu eta ibili eta ibili hasi zen Aralargo larreetan zehar. Azkenik ilundu zuen eta baita izugarrizko ekaitza hasi ere. Ekaitzetik babestu nahiean leze batera heldu zen. Oso iluna zegoen leze hura, eta egoe-ra hori ikusirik bere zorroan zekarren farolatxoa piztu eta lezearen barrura abiatu zen. Eta halako batean "krass!", zulo batera erori zen.

Berehala esan zion Txuriri laguntzeko. Eta Txurik hala egin zuen, laguntza eske joan zen herrira.

Busti, busti heldu zen herrira. Herritarrek segituan ulertu zuten Txuriren larritasuna eta bere atzetik joan ziren lezeraino. Lezearen barruan, Anttonen oihuak entzun zituztenean, segituan atera zuten Antton zulotik.

Orduz geroztik Txuri izan zen herritarren artean aberirik mirestuena.

XABIER ARREGI URKIZU

9 urte

HITZ JOKUAK



Andoni, doni, doni,
Andoni alperra,
zergatik utzi duzu
luzatzen bizarra?


Irati, rati, rati,
Irati piruliña,
nola bihurtu zara
etxeko sorgiña?

A, a, a, Marisa dut ama.
E, e, e. Eñaut errege.
I, i, i. Iñaki kakati.
O, o, o, Aitor torero.
U, u, u, Xalba kukurruku.

ENAUT MAKAZAGA DE LA TORRE

7 urte

GUSTOKO TXOKOAK



Maite dut maite
Lezohandi zuahiztia.
Berdin berdin
Munttarreko belardia.
Beste hainbeste
Platiturrriko itturria.
Berdin berdin
Kaxernako pinudia.
Eta hori baino gehiago
Lezoko herria.

XABIER DORRONSORO AMIANO
11 urte

ZUHAITZA NATURAREN EUSKARRIA

Lanbroa goiz sartu da
gaur mendian,
eta beste behin,
aspaldiko partez zaitut oroimenean.
Egun ederrenak eta txarrenak
igaro dituzun lekuan
dirauzu oraindik.
Zaharturik, baino
gogor eta sendo.
Laket zait zure kolore marroixka,
eta atsegingarria zure ile orlegiaren
freskotasuna.
Altua eta meharra zara,
besteen artean berezia.
Zure itxurak mendi eta herriak
alaitzen ditu.
Zure adarrak, alaitasun eta
pozaren eskuak.
Beste behin, aspaldian senti
arazten zenidan bizi gogoa
sortzen didazu.



Haizearen musikak dantzan
jar arazten zaitu,
horrelakoetan zure besoekin
itsasoan uretan zehar
dabilen olagarroa dirudizu.
Txoriek alaitutako bakardadean,
naturaren bizigarria zara.

IZASKUN URKIA LAZKANO
13 urte